

MURUMENDI ESAUNDAFTAN *

Urrun ikusten ditudan garai gogoangarriak dira neretzat 1916 eta 1917 garrengo urteak.

Aldi hartan, gure aran eta mendietan zear, euskal lehen-gizakiak eta hauen bizikerak eta ezikera ikasten asia bainintzan.

Gure Goiherri hontako lurraldeak bereziki nere gogoko nituan. Hauetarik Beasain'go Muru edo Murumendi eta Aralar'go Alotza batez ere hemen aipa nahi nituzke.

Muru, ia 900 metroz itxasotik gora dagon tontor bat da. Ba dira han, goien eta oinean, harpe eta leizeak.

Esaunda batzuek adierazten digutenez, zulo haietako batetik askotan irten ohi omen da irelu bildurgarri bat —Suga-arra— eta, sua dariola, odei-gainen zear juaten beste mendi batzuetako sugaarzuloetara. Lope Garcia de Salazar idazkariak, XV garren gizaldian zionez, Suga-arra izan omentzan Jaun Zuria, Bizkai'ko lenengo jaunaren aita.

Baita esan ohi dute hemen, inguruko herrietan, Muru'ko harpe hortan agertzen dala beste irelu aipatu bat Mari edo Marimundu-

* Honako jaietako eskuegitarautek aterata: *Beasain Fiestas Jaietan*, ok. 6-7, Beasain, 1981.

ko, emakumezkoa bera. Diotenez, hau dabil maiz odeietan susko igitai baen antzera, harri-erantsiak an-hemen jaurtiaz. Iñoiz ordea bere harpearen atakan illeak orraztuaz agertzen omēn da, emakume eder baten itxuran.

Behin Murumendi'n artzai bat omen zebillezn iturri billa, egarri zegolako. Hartan, harpe baten ondoan zijoala, bere atakan andereño bat ikusi omen zuan —Mari— soineko ederrez jantzia. Honen artzaiari galde:

— Zeren billa habil, gizon?

— Uraren billa.

— Sagardoa esan nahiko dek.

Hori esanda bereala ekarri omentzion pitxar bat sagardo.

Edaten asi orduko, artzaiak dio:

— Sagardo ezin-obeia. Ze sagarrekin egina da?

— Ikaztegieta'ko Montes jaunak ezari emandakoarekin (Zerbait ezari ematea, ez dala esatea da).

Murumendi'ko Mari honegaz gure herrietan esan ohi da, Bizkai'ko jaun Diego Lopez de Haro izenekoaren amagaz D. Pedro de Barcellos'ek dion gertaera. Hara hemen:

Aldi batean Mari bere harpearen atakan zegoala, han gertatu omentzan Beasain'go Buruguen baserriko mutil bat. Elkarrekin izketan biak asi, baita elkarregaz itxutu eta ezkontzeko itza eman ere.

Ezkondu omentziran eta zazpi seme izan.

Mari ez omentzan elizara juaten (ez baitzan kristaua) ezta semeak bataiatu ere.

Gizonak ordea, bataiatu behar zituala-ta, egun batez gurdian sartu danak beren amarekin, eta Beasain'go elizara omen zeramatzan. Bainan elizara inguratzean, Mari su-ta-gar jarri, lokarriak erre eta aideatu omentzan. Buruguene ondoko mailloan oiñaskak utzi eta Muru'ko bere lehengo aterbera juan deadar eginaz: «Zazpi semeak zerurako, ni Mururako: Buruguena ez da sekulan heri edo maki gabe izango».

Muru-tontorraren ondoko lepoan ba-omen zuten artzaiak pelotaleku bat. Behin berak pelotan zebiltzala, jentil bat etorri eta han harri aundi bat ikusita, galde:

— Harri hau zertarako dezute?

— Sakearritarako —erantzun zioten.

— Bera ere ez dek pelota txarra izango hau —esanda, bereala eskuan hartu eta Aralar-aldera aurtiki omentzuan.

Harri hori bidean bi puska egin. Puska bat Zaldibi'ko Ausagatzelu ondoan erori; bestea Alotza'ko zelaian.

Han dago Alotza'n oraindik bigarren puska hau. Hiru metroz luze da eta Salta-harri izenez ezaguna.

Harri honen hondoan daude artzaien pelotaleku bat eta jentillen dantzalekua.

Han jentillak gauaz, illargibetea, dantza egiten omen zuten, bakoitzak bere errañuarekin. Hara hor gure dantzen irakaslentzat gai berezi bat beren taldeai egineraztea merezi ba-du.

Ba-da esaera «aurreak erakusten du atzeak nola dantzatu». Jentillen dantzan, hori gertatuko zan.

MURUMENDI EN LA LEYENDA

Los años 1916 y 1917 son para mí una época memorable, si bien lejana.

En aquel tiempo había iniciado mis recorridos por nuestros valles y montañas para efectuar investigaciones sobre el hombre prehistórico del País Vasco y sobre sus modos de vida y su cultura.

Las tierras de este nuestro Goierri sobre todo, me eran gratas entonces y ahora. En este trabajo quiero decir algo sobre un aspecto de algunas de ellas, principalmente de las montañas *Muru* o *Murumendi*, de Beasain, y *Alotza*, de Aralar.

Muru es un monte que alcanza casi 900 metros de altitud sobre el mar. En él, tanto en su zona más alta como cerca de su base, existen cuevas y simas.

Según algunas narraciones populares, un genio espantable, llamado *Suga-arra* «culebro», sale con frecuencia de una de tales cavernas, y despidiendo fuego o en llamas, atraviesa el cielo para ir a sus moradas de otras montañas. Según dejó escrito Lope García de Salazar en el siglo XV, *Suga-arra* o «Culebro» fue el padre de Juan Zuría, primer señor de Vizcaya.

También aquí, en los pueblos del contorno de *Murumendi*, cuentan que en la caverna ya citada de este monte, suele aparecer un genio femenino muy recordado, cuyo nombre es *Mari* o *Mari-munduko*. Dicen que ella anda muchas veces en los aires en figura de una hoz de fuego, descargando en ciertos casos el pedrisco en diversos lugares. Pero también se deja ver en forma de una mujer hermosa, peinando sus cabellos en el portal de su morada.

En cierta ocasión, un pastor andaba por *Murumendi* en busca de una fuente donde saciar su sed. Al pasar junto a una caverna vio en la entrada de la misma a una señorita —*Mari*— elegantemente ataviada. Esta preguntó al pastor:

— ¿Qué buscas, hombre?

— *Agua* —le contestó el pastor.

— *Querrás decir sidra.*

En diciendo esto, le trajo del interior una jarra de sidra.

En cuanto el pastor la probó, le dijo:

— *Excelente sidra. ¿Con qué manzanas está hecha?*

— *Con la que el señor Montes de Icazteguieta dio al no* —le contestó, queriendo decir que el sidrero de Icazteguieta había negado que él tuviera tal sidra.

Una leyenda que cuentan en nuestros pueblos acerca de esta *Mari de Murumendi* la refirió acerca de la madre del señor de Vizcaya D. Diego López de Haro, el conde D. Pedro de Barcellos, en su «Livro dos Linhagens». He aquí la versión de Goiherri:

Un día en que *Mari* se hallaba en la entrada de su cueva, llegó

allí un muchacho del caserío *Burugüene*. Ambos empezaron a conversar; también se enamoraron y se dieron palabra de casarse.

Se casaron, en efecto, y tuvieron siete hijos.

Mari no iba a la iglesia (ella no era cristiana); tampoco bautizó a sus hijos.

Pero el marido, tratando de bautizarlos, los puso en un carro juntamente con su madre y los llevaba a la iglesia de Beasain. Al acercarse a la iglesia, *Mari* se puso en llamas y se alejó en el aire. En su camino dejó grabadas las huellas de sus pies en el peñón próximo a *Burugüene* y se dirigió a su antigua morada de *Muru*, diciendo a gritos: «Los siete hijos para el cielo, yo para *Muru*; jamás faltará en *Burugüene* algún enfermo o lisiado».

Cuéntase que en el collado contiguo al pico de *Muru*, los pastores tenían un juego de pelota. Una tarde, en que ellos jugaban allí, se les presentó un gentil, quien, al ver en aquel lugar una piedra de grandes dimensiones, les preguntó:

— ¿Para qué os sirve esta piedra?

— Para sacar la pelota —le contestaron.

— Tampoco ella será mala pelota —dijo el gentil, la tomó en su mano y la lanzó hacia Aralar.

Esa piedra se hizo dos pedazos en su camino. Uno de éstos cayó junto a *Ausa-gaztelu* (castillo medieval, sobre Zaldivia) y el otro en el padro *Alotza*.

Esta segunda pieza se halla todavía en *Alotza*. Mide tres metros de largo y es conocida con el nombre de *Salta-harri*.

Junto a esta piedra están un *pelotaleku* o antiguo juego de pelota de los pastores de aquella zona y un legendario campo de baile de los gentiles.

En este sitio dice la leyenda que bailaban de noche, en los plenilunios, los gentiles de estos lugares, *cada uno con su sombra*. He ahí un tema especial que nuestros maestros de baile podrían ensayar con sus grupos, si merece la pena.

Es un dicho corriente: el delantero enseña cómo ha de bailar el de atrás. En el baile de los gentiles se cumpliría bien esta norma.

Ataun, 6 de Abril de 1981